



ATAUNgo UDALA

ALKATETZAREN DEKRETUA. -

Ataungo Udalak, 1999ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, herri erabilerako baso-pista eta bideen erabilera berezia arautzen duen Ordenantza onartu zuen. Ordenantza horren testua oso osorik argitaratu zen 1999ko uztailaren 27ko G.A.O.n (141 zk.a).

Aipatu Ordenantzaren 11. artikuluan, fidantzen kopuruari buruzkoan, aurreikusten da kopuru horiek urte bakoitzaren hasieran eguneratuko direla, dekretu bidez, K.P.I.aren arabera. Baina 2004. urte geroztik ez dira eguneratu.

2004tik 2007ra arteko K.P.I. metatua %11,10koa dela jotzen da.

Hori horrela, Alkatetza honi dagozkion eskumenez baliatuz, honako erabaki hau hartu dut:

Ordenantzan ezarritako fidantzen kopurua eguneratzea. Horretarako, ordutik hona pasa diren urteetan metatu den K.P.I.a ezarriko da.

Hona hemen, fidantzen kopurua eguneraturik:

A. Egur garraioa

| | <i>Estereoko</i> | <i>errealera m³ko</i> |
|---------------------------|------------------|----------------------------------|
| Kilometro bateraino | 2,00 euro | 3,00 euro |
| Kilometro batetik biraino | 2,80 euro | 4,20 euro |
| Bi kilometrotik aurrera | 3,10 euro | 4,90 euro |

B. Baimena behar duten beste garraioek.

| | <i>Kamioiko</i> |
|---------------------------|-----------------|
| Kilometro bateraino | 55,00 euro |
| Kilometro batetik biraino | 77,00 euro |
| Bi kilometrotik aurrera | 88,00 euro |

Gutxiengo fidantza, edozein kasutan 235,50 eurokoa izango da.

Ataunen, bi mila eta zortziko urtarrilaren hogeita bostean.

ALKATEA,



Nire aurrean
Idazkaria